

**[ETORRIA TA ETORTZEKOA]**

Etorria ta etortzekoa,  
denboraren antzekoa,  
hasera bako goiko Jaun zara,  
betiereko Jainko.  
Gure uneak antzina zaitu,  
oraina eta geroa;  
zeugan garean apurra gara,  
zeu zara gure altzoa.

Gure arteko  
harremana,  
—zure eta gure  
arteko—,  
gure arteko  
harremana  
zeuk hasia da,  
Jainko Jauna.  
Zeu zara beti  
zatozana,  
—Zeure ta geure  
betekoa—,  
Zeu zara beti  
zatozana,  
ez duzu neurten  
erantzuna.

Zeu zara gure osotasuna,  
gure helburu gorena.  
Ikusten duzu mintzo ta kantu  
zeuri begira gaudena.  
Guganatzeko duzun joeraz  
beti gugana zaudena,  
zu bai Abendu, Gabon gauero  
jaioberritzen zarena.